

Bilbon, 1996ko otsailaren 23an (Goizekoa)

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
San Martin, J.
Sarasola, I.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Hiztegi Batua

Ba-belztura hitz saila aztertu da egungo batzarrean. Batzordearen izenean P. Salaburu mintzatu da. E. Knörrek bidali dituen oharren artetik batzuk ontzat hartu dira, hala nola *baita* (*zure baitan*, adibidez), *baratxe*, *barealdi* eta *basaran* sartzea, eta beste batzuk ez: *bait-* eta *-bait*, esate baterako, ez dira zerrendaratuko, hitz beteak ez izaki.

Bailara dela eta, X. Kintanak bere goganbeharra agertu du, eremu meharra duen hitz honek ez ote dituenibar eta *haran* baztertuko. "Eskualde" esanahia duela adieraziko da zerrendan.

Bakterio- / *bakteria* auziaz luze eztabaidatu da. Azkenean, bi formak onartzea erabaki da, baina *bakterio*-ri lehentasuna emanez.

Baratza / *baratze*, alde batetik, eta *baratzain* / *baratzazezain*, bestetik, izan dira orobat eztabaidagai. Batzordeak *baratza* forma proposatu du. E. Knörrek, berriz, *baratze* hobestea eskatu du bere oharretan, *baratza* "jolasleku" esanahiarekin utzirik. Bes-

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1996ko otsailaren 23an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. L. Villasante eta A. Irigoyenek beren ezin etorria adierazi dute.

Agiriak

Urtarrileko bi agiriak onartu dira, arratsaldekoan zuzenketa bat egin ondoren.

Hildakoak

Santiago Onaindia euskaltzain ohorezkoa eta J. Angel Etxebarria euskaltzain urgazlea zendu direla aditzera eman du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Juan M. Lekuonak eta Juan San Martinek egingo dute Onaindia jaunari buruzko txostena, eta Jose A. Aranak Etxebarria jaunaren gainekoa.

talde, *baratzezain* egokietsi du batzordeak. Eztabaidaren ondoan, batzordeak *baratza* eta *baratzezain* proposatu ditu. Bozketa egirik, 13 boto lortu ditu proposamenak.

Baxenabartar dela eta, E. Knörrek *behenafar* eta *baxenafartar* bi izenen aldeko iritzia eman du bere oharretan. X. Kintana eta Tx. Peillen, berriz, bigarrenaren aurka agertu dira. J. Haritschelharrek *baxenafartar* aldeztu du. E. Knörrek probintzia eta probintziatarren izenak aztertzeo eskaria Onomastika batzordera pasa dadin proposatu du. Hala erabaki da. Zernahi gisaz, *baxenabartar* onartu da.

X. Kintanak *betzulo* ere kontuan har dadin eskatu du, hizkuntzak dituen konposaketa erregelata zaharrei beren pisua aitortuaz. Euskaltzain batzuek parte hartu dute eztabaida honetan. Ondorioz, *betzulo* ere sartzea erabaki da.

Bemol-bidari hitz saila hurrengo egunetan helaraziko zaie euskaltzainei, oharrak, ohi bezala, batzar hileko 20a baino lehen bidaltzeko.

Urgazle berriak

Urgazle berriak izateko hautagaien zerrenda banatu da. Hogeita bederatzi dira proposatuak. Azken bost urteetan ez dela urgazle berririk izendatu gogorazteaz gain, euskaltzainburuak esan du hautagaien erdiak Akademiaren batzordeetan lan egiten duela eta Euskaltzaindiaren lana bera ugalduz doala. Atzerriko euskalariek ere beren tokia dutela gehitu du.

1995eko diru kontuen errendapena

J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomia eragileak azaldu dute dokumentua, Zuzendaritzak onartua. Urte osoan egin diren murrizketak aipatu dituzte bereziki beren aurkezpenean. Halaber begiz jotako baino diru gehiago lortu dela. Aldeko kopurua ageri dela gaineratu du Zearreta jaunak; ez da aiantzi behar, ordea, badirela zor batzuk. Euskaltzainburuak esan du ondorio hau ez dela txarra, gogoan izaki Herri Aginteei berandu ordaindu dutela; 1996ari dagokiola, Hitzarmenaren arabera urtarrean ordaindu behar zutena Bizkaia eta Nafarroak bakarrik ordaindu dute.

B. Oihartzabalek esan du urtea gaizki bukatu ez bada ere Euskaltzaindiak ezin ager daitekeela jendaurrean egoera normalean balitz bezala. P. Salaburuk Euskaltzaindiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin duen hitzarmena aipatzea eskatu du. Esan du, bestalde, Larrabearen, martxoko batzarrean, alogeretan eta kargudunen ordain-sarrietan mozketa egitea erabaki bazen, osoko batzarrera ekarri behar direla bestelako proposamenak. Izan ere, haren iritziz, berdin ordain litezke txostenak eta. Gainera, lanpostu bakoitzaren definizioa behar dela esan du. P. Goenegak galdetu du zergatik gauza batzuk ukitu diren eta beste batzuk ez; argibidea behar da, haren aburuz.

J.L. Lizundia idazkariordeak oroitarazi du Larrabearen ez zela, ordainteki buruz, erabaki finkorik hartu, murrizketak egitea baizik, eta lanpostuen mailakatzea egina dagoela. Larrabeo erabakiari datxekola, Lizundia jaunaren iritzi berekoa agertu da P. Ondarra.

J.A. Aranek esan du 1995eko apirilaren 12an Herri Aginteei sinaturiko hitzarmena, Euskaltzaindiaren zorra kitatzeko, izan zela arrazoia, Zuzendaritzak murrizketa batzuk ken zitzaiz.

M. Azkarateren ustez, Administrazio publikoaren beste eskakizunak ere bete litezke Euskaltzaindian. P. Salaburuk batzar monografikoaren beharra aipatu du, Akademiari

dagokion lana ekoizteko egitura egokiena zein den ikertzeko. Gainera, liburuzainaren lanpostua oraingoz ez betetzea eskatu du.

Idazkariak, Larrabeko erabakiak gogoratu ondoren, esan du Euskaltzaindiak ibilera hobetu duela, baina oraindik ere gauza asko daudela hobekizun. Haren iritzi, profesionalkiago jokatu behar du erakundeak, baita dirua bilatzeko ere, lanak duintasunez ordainduko badira. Nolanahi ere den, errendapenaz bozkatzeko eskatu du. Euskaltzain batzuek hitz egin dute ondoren, gehienek dokumentuan aldaketak egin daitezkeela esanez. P. Salaburuk proposatu du atzerapen guztiez diru-multzo bat egin beharko litzatekeela. Azkenean, iritzi guztiok kontuan izanik, errendapena ontzat eman da.

Eskuartekoak

Antoine d'Abbadieren heriotzaren ehun urtekari 1997an egingo den biltzarraren antolatzeaz mintzatu da euskaltzainburua. Eusko Ikaskuntzako buruari eta Frantziako Zientzien Akademiako presidenteari idatzi dizkien gutunak eta haiengandik harturiko erantzunak aipatu ditu. Begi onez ikusten dute biek xedea. Ohorezko batzordea eta antolakizun batzordea luza gabe eratu beharra azaldu du Haritschelhar jaunak. Ontzat haru dira batzarrean orain arteko urrats hauek.

P. Charritonek d'Abbadieren eskuizkribuak argitaratzea komeni dela esan du.

E. Knörr Onomastika batzordeburuak azaldu du ICOS (International Congress of Onomastic Sciences) delakoak hiru urteoro egiten duela bere biltzarra. 1999koa, XX.a, Euskal Herrian antolatzeko aukera izateko, ICOSeko buruzagitzakidea den Dieter Kremer irakasleak gutunez aholkatu du asmo hori Unibertsitate batek suzutatzea. Euskaltzaindia biltzarraren antolatzailerak izan dadin, batetik, eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza eskatzea proposatu du Knörr jaunak. Horrela onartu da aho batez.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria